


Zumaiako herri aldizkaria

1999ko maiatza

BALEIKE

200 pta.

57. zenb.



● **Elkarrizketa:**
Jose Luis Elosua,
Beheko Plaza
Elkarteko
presidentea

● **San Telmoak**
argazkitan

● **Astilleroetako**
langileak
greban

● **Pulpok Lehen Mailarako**
igoera lortu du

ERROTA

OPIL OKINDEGIA



*era fuztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

ZUMAIA

haize berriak

Euskal Herritarrok zurekin

MAIATZAK

13

osteguna

**Ingurugiroa
eta hirigintza**

MAIATZAK

20

osteguna

**Kultura
eta euskara**

MAIATZAK

27

osteguna

**Ongizatea eta
sozio-ekonomia**

Aurkezpen guztiak Oxforren
izango dira,
arratsaldeko 7:30etan.



PROGRAMAREN AURKEZPENAK



Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 10 56
faxa: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIAKO GAZTE BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue
Uxua Ostolaza
Iñaki Zubimendi

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre
Esther Aizpurua
Eneko Dorronsoro
Ane Osa

Joseba Ossa
J.L. Romatet

Igor Uranga
Josu Waliño
Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre
Igor Uranga
Gorka Zabaleta

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub taldea, Ingurugiro tailer eskola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet, Jon Manzidor, Fototeka, Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Iñigo Garcia

Argazkiak

Jonathan Bernal
Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Xabier Azkue
Ixiar Uranga

Banaketa

Andoni Ormazuri
J.J. Aizpurua
Aloña Manzidor

Publizitatea

Uxua Ostolaza
(943 861056)

Inprimategia

Gertu Inprimategia
(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleike ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik,

Alkateak informatzen zaitu

Hauteskundeen etorrera nabaritzeko ez dago egunkaria irakurri beharrik. Nahikoa da kalean buelta bat eman eta legealdi osoan egin ez diren lanen azken ikutuak egiten ari direla ikustea.

Hauteskunde hauetan ordea, honek baino gehiago harritu nau azken hilabeteotan etxeko buzoian jasotako udal "informazio" guztiak. Honek orain bost urte gertatutako zerbait ekarri dit gogora: aldizkari hau sortzeko proiektua idatzita genuela Udaletxera joan ginen beti bezala laguntza eske. Jasotzen lehenerantz beraiek ere antzeko zerbait kaleratzea pentsatzen zutela eta bi aldizkariren beharrik ez zegoela izan zen. Hala ere laguntza eman ziguten eta Baleike kalean egon da hilero-hilero, Udal aldizkaria kaleratzen hasi den arte hain zuzen ere.

Bi hilabete eskasetan, Udaletxeko bi aldizkari eta beste hiru informazio/propaganda orri jaso ditut etxeko buzoian. Lan hau dela eta Udaletxea zoriontzeko gustatuko litzaidake, baina ez naiz fido. Gauza on eta txar asko esan daitezke aldizkari honetaz, Baleike edo beste edozeinetaz bezala. Pozgarria egiten zait Udalak herriarekiko begirunez hilero informazioa zabaltzeko erabakia hartu duela ikustea, kasu batzutan aldizkaritik kanpo ere orri bereziak ateraz (igerilekuari buruzkoa, hirigintzako, etab.). Gaizki pentsatzeari ekin diot ordea, eta lan hau hauteskunderi begira eginiko propaganda saio bat bezala ulertzea erabaki dut. Hauteskundeen ondoren, herria informatzeko bide berdinetik jarraitzen baduzue ziur egon idatzi behar dudan hurrengo hitzaurrea lan hau zoriontzeko erabiliko dudala. Bitartean lasai nago, badakidalako hauteskundeen ondoren ere betiko Baleike izango dudala, bere seigarren urteurrenaren bila.



Josu Waliño

Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48
Alkoholikoen senideak	943 47 54 03	Sexu-informazioa	943 32 04 44

Argitalpen honen edizioko laguntzaileak:



Zumaia Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



IXIAR EIZAGIRRE

Kirol portua

*Haizeak eraman ditu txoriak
betirako itzultzeke
ta beleroak ekarri haien
lekua dezaten bete
lau aberatsen kapritxorako
natura saltzen da merke:
dirua bizitza truke
prezio justua ote?
Itsas plano eskutan duten
piratek zenbat bertute
inorena zen altxor zaharra
urpera bota digute.*

*Itzuruneko harkaitz lerroen
mendetako ixiltasuna
faroak kiñuz seduziturik
erazten den gau iluna
kale galdutan izkututzen den
lapikotako lurruna
herri bakar zaituguna
dohaitzat xumetasuna
bisitarien erakargarri
duzu berezkotasuna
bihurtu gabe turista batek
argazkiratu nahi duna.*



JOSEBA OSSA

Zer arraio da “Bidezko merkataritza”?

Inoiz pentsatu al duzu zenbat kobratzen ote duen Hego Amerikan kafea hazten eta biltzen duen nekazariak? Pentsatu al duzu inoiz zenbat izerdi bota behar duten Afrikako nekazari xumeek, guk txokolate edo kafe ederraz gozatu ahal izateko?

Ez al zaizu iruditzen kolonialismo politikoa ahuldu arren munduan kolonialismo ekonomikoa gero eta indartsuagoa dela?

Erraz salatzen ditugu geuk jasaten ditugun injustiziak. Baina konturatzen al gara zenbat injustizia behar diren guk gozaten dugun bizi-mailari eusteko? Ba ote dakigu zenbat ume esplotatu behar diren guk dendan zapatilla merke-merke erosi ahal izateko?

Munduko aberatsenen klubean gaudenok gozaten dugun bizi-maila Munduko pobreen kontura lortu dugu.

Badakit ur handitan sartzea dela, baina errealitatea oso gordina da. Dena den, badira horren aurrean zerbait egiten dutenak: Kooperatibetan bildu, eta beraien lanagatik prezio duina eskatzen dute. Mundu mailako sareetan antolatu dira, merkataritzaren munduan justizia pixka bat sartu nahian.

Hori bai: horrek ere bere prezioa du, eta Eroskin 200 eta piko pezeta ordaidu beharrean, haien kafea 375 edo 425 pezeta ordaindu beharko duzu. Garestiegia dela? Galde iezaiozu Hirugarren Mundukoei...

Zorionez, Zumaian ere laster izango dugu gai horiei buruz jakiteko aukera, datorren maiatzaren 8an eta 9an Oxford-en erakusgai (eta erosgai) egongo direlako “Bidezko Merkataritza” delakoen produktu batzuk, Zumaiaiko Parrokiako zenbait talderi esker.

Goza ezazu zuk ere kafe, azukre, txokolate, ron eta beste hainbat produktu batzuek, zeure ahoaren gozorako eta kontzientziaren lasaitasunerako izango da-eta.

On egin!



7 Arrain eta mariskoak
MARES Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak
7 MARES AZOZTUAK Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

HARATEGIA URDAITEGIA
agustin HARAKINA
Itzurun zuhaitzbidea, 1
Tel. 862430

BASADI ALBAITARITZA KLINIKA
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-
Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508
1. arrialdiak - 24 ordu - zeure etxean

Astillero- etako langileak greban, soldata duinago baten eske

Zuzendaritzak propo-
saturiko lan
hitzarmena onartezina
iruditu zaie langileei

Apirilaren 14tik greban dira

*Astilleros Valenciaga
enpresako langileak. Enpresa
zuzendaritzak datozen hiru
urtetarako aurkezturiko lan
hitzarmenarekin ez daude
batere ados. Izan ere,
soldatak ez igotzea propo-
satzen da. Greba hasi eta
hiru egunetara, zuzenda-
ritzak enpresa ixtea erabaki
zuen, greba egiteko modua-
rekin ez zegoelako ados.
Aldizkaria amaitzerako
orduan, artean ez zen
akordiorik.*

“Jadanik bi urte daramatzagu soldata igoerarik gabe, eta hitzarmen berria onartuz gero, bost urte izango lirateke, eta hori ezin dugu onartu”. Horrela azaldu ziguten grebalariek arazoaren muina. Beraien ustez, proposamen hori lotsagarria da, une honetan enpresa dirua irabazten hasi delako. “Guk aurreko urteotan soldatarik ez igotzea onartu dugu enpresa altzatzeko ezinbestekoa zelako. Lana ere gogotik egin dugu, inolako kexarik gabe, hala egin behar zela ikusten genuelako. Orain enpresa dirua egiten hasi da, eta uste dugu irabazi horietatik zerbait dagokigula”, jarraitzen dute. KPIa (IPC) gehi zerbait gehiago eskatzen dute langileek, eta lanuzte-etako baldintzak hobetzea. Enpresako zuzendaritzak ez ditu baldintza horiek onartzen, eta badirudi greba luzerako joan daitekeela. Gainera, enpresa ixtearen erabakia grebalarien haserrea piztu du: “Gure greba egiteko era ez omen dute onartzen. Sistema aldatzeko eskatu zigun, eta hala egin genuen, baina bigarrenarekin ere ez omen zegoen ados. Uste dugu greba eskubidea dela eta hori negoziatu beharra bakarrik falta zitzaigun”. Zuzendaritzak enpresa ixtea erabaki zuen, apirilaren 17an. Egoera hori legez kanpoko zela eta, langileek administrazioa jo eta maiatzaren hasieran enpresa zabaltzera behartu zuten zuzendaritza, zigorraren mehatxupean.

Zuzendaritzaren dimisioa eskatzen dute

Langileak greba azken muturreraino eramateko prest daude. Negoziazioan aurrera egiten ez bada, “ekintza



larriagoak” burutuko dituztela iragarri dute. Gainera, jadanik zuzendaritzaren dimisioa eskatzen dute, “enpresa hondoratu egingo dutelako”. Langileek ez dute inolako konfidantzarik zuzendaritza honengan, “beraiek daudenetik enpresa okerrago doalako”. Langileen esanetan, agindutako dirua ere kendu omen diete. “Iaz egindako bi Wironengatik armadoreak 16 milioi pezeta agindu zizkigun sari gisa, lana epe jakin baterako amaitzeagatik. Diru hori guretzat izango zela esan zigun zuzendaritzak, baina azkenean “zuloak estaltzeko” erabili behar zutela”.

Zuzendaritzak akordioa lortzea espero du

Bitartean, Vicente Galdeano enpresako gerenteak ez du akordioa lortzeko itxaropena galdu. Orain arte bi aldeak ez dira bat egiteko gauza izan, proposamen ezberdinak izan diren arren. Zuzendaritzak soldata ez igotzeko hasierako asmoa baztertzeko prest dago, baina ez daude orain arte langileek eginiko eskakizunetara iristeko prest, gehiagi iruditzen baitzaie. Tamalez, greba hau luze joango dela dirudi. ◀

Alberdi

Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156

Antonio Etxabe

*Gizonezkoen
erropak*



Zumbillo, 4 Tel. 861407



Aurtengo honetan Zumaiaiko Nazioarteko musika jaialdiak bere 15. edizioa beteko du. Hori dela eta, hainbat ikastaro eta kontzertuen artean, bi kontzertu handirekin gozatzeko aukera izango dugu: Kepa Junkera eta Luar Na Lubre.

Zumaia 99 jaialdiko egitaraua prest

Aurtengo jaialdia uztailaren 31tik abuztuaren 12ra bitartean izango da eta gertatu ohi den bezala bi arlotan banatuko da. Batetik ikastaroak izango dira, honen barne lehiaketa pare bat jokatu direlarik, eta bestetik kontzertuak.

Ikasketen ardura nazioarte mailako sei maisu handik hartuko dute. Ikastaroen ardatz nagusia ganbera musika izango da, eta horren barruan irakasle bakoitzak instrumentu baten ardura hartuko du. Bibolina eta ganbera musikaren irakaslea Corrado Bolsi italiarra izango da. Honek European, Amerikan, Japonian eta Australian zehar bakarleri edo ganbera musika taldeetako partaide moduan kontzertu ugari eman izan ditu eta Cristofori Laukotearen sortzailea da. Biola irakaslea Paul Cortese estatu batuarrak dugu, Estatu Batuetan, Canada eta European zehar hainbat ganbera musika talderekin aritua. Biolontxelo

ikastaroaz Sandro Meo italiarra arduratuko da, nazioarteko ganbera musika lehiaketa ugariren irabazlea. Piano irakaslea, Riccardo Cecchetti italiarra, mundu osoko areto garrantzitsuenetan jo izan duena, hainbat lehiaketaren irabazlea da. Klarinete eta Oboe ikastaroez bi balentziar arduratuko dira: Jose Luis Estellés klarinetejolea eta Eduardo Martínez oboe irakaslea. Lehena, hainbat kontserbatorioetako irakaslea da; bigarrena, aldiz, orkestra munduan lan ugari egin duena.

Aurretik esan den bezala, barne lehiaketa batzuk ere izango dira Zumaia 99 jaialdian. Lehena "Bakarleri bezala orkestrarekin kontzertu bat jotzeko lehiaketa" izango da. Lehiaketa hau ikasle parte-hartzaileentzat da soilik eta 70.000 pezetako dirulaguntza izango du. Lau ataletan (arkuak, haizezko tresnak, pianoa eta jadanik osaturiko taldeak) banatua-

dagoen lehiaketa honetako irabazleak Jaialdia itxiko duen kontzertuan Jaialdiko Orkestrarekin jotzeko aukera izango du. Beste lehiaketa "Ganbera taldeentzako nazioarteko lehiaketa" da. Hau, ikastaroetan parte hartzen duten ganbera taldeentzat izango da soilik. Talde hauek jadanik osatuak egon daitezke edo bestela ikastaroan bertan osatuak izan. Epaimahaiak hiru sari emango ditu, lehenarentzat 130.000 pezetakoa. Esan behar da lehiaketa honetan ikuslegoaren sari bat ere izango dela, hau meritu diploma bat eta 30.000 pezetako dirulaguntzaz osatua.

Ohizkoa den bezala Jaialdiko Orkestra bat osatuko da. Ikastaroetan parte hartzen duten guztien artean ikasle onenak aukeratuko dira Manel Valdívieso maisuak zuzenduko duen Orkestrako partaide izateko. Zuzendari kataluniar hau Madrilgo Orkestra Sinfoniko, Granada Hiriko Orkestra

ARGIA
ARROPADENDA

Itzurun, 1

Tel. 143224

Arkupe
Okindegia
eta gosariak.

Kale nagusia, 2 Tel. 861521

ad AUTOS
ZUMAIA

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

eta "Jove Orquesta Sinfónica de Catalunya" bezalako orkestra eta elkarte instrumentalen zuzendari izan da besteak beste.

Kontzertuen egitaraua

Egitaraua oraindik ere guztiz finkatu gabe badago ere, pare bat izen handi somatzen dira zerrenda honetan. Batetik Kepa Junkera trikitilari bizkaitarra, bere "Bilbao 00.00h" diskoarekin sari ugari jaso dituena, eta bestetik Luar Na Lubre folk talde galiziarra. Talde honek azken bi urte hauetan nahiko fama lortu du, abeslariak Mike Oldfield-en "Tubular Bells III" diskoan parte hartu zuelako. Oraindik udara arte egitarauan aldaketa batzuk egon balitezke ere, hona hemen kontzertuen zerrenda:



• **Abuztuak 1:** Kepa Junkera. Sarrera: 2.000 pezeta.

• **Abuztuak 2:** Irakasleen kontzertua.

• **Abuztuak 3:** Kontzertu pedagogikoa. Xabier Lizasoren gidaritzapean ipuin kontaketa eta musika elkartuko dira. Musika eskolako ikasleek parte hartzea izango dute, eta bertako instrumentu guztiek parte hartuko dute.

• **Abuztuak 3:** San Pedro abesbatza.

• **Abuztuak 4 edo 5:** I. laborategia. Ikasle eta irakasleen kontzertua Mari Kalean.

• **Abuztuak 6 edo 7:** Euskadiko Gazte Orkestra.

• **Abuztuak 8:** II. laborategia.

• **Abuztuak 10:** Ganbera Musika Lehiaketa.

• **Abuztuak 11:** Zumaiako Jaialdia eta Donostiako Musika Hamabostaldiaren arteko kolaborazioa. Bi kontzertu izango dira:

- San Pedro Parrokian, iluntzean: instrumentu zaharrekin eginiko musika emanaldia.

- Itzurunen Luar Na Lubre-ren kontzertua. Sarrera: 1.000 pezeta.

Arratsaldean zehar gaitero galiziarren kalejira izango da.

• **Abuztuak 12:** Jaialdiko Orkestra.

Emanaldi denak Maria eta Josen izango dira, aurretik aipatutakoak izan ezik. Aipatzekoa da kontzertuen artean geratzen diren egun libreetan, Jaialdiko ikasleek beren musika kalean jotzeko aukera izango dutela.

Hasierako urteetako elitismo hura alde batera utzi, eta herrira hurreratu nahi izan da Jaialdia azken urte hauetan. Espero dezagun denon laguntzarekin asmo horiek ongi ateratzea. Musika ona dastatzeko aukera izango dugu behintzat.

◀ JUAN LUIS ROMATET

Kubaren aldeko kanpaina

Aurreko urtean egin zen bezalaxe, aurten ere Elan-Euskadi taldeak Kubaren aldeko kanpaina egingo du Zumaian. Era guztietako materiala bidali daiteke, baina bereziki materiale eskolarra eta aurten esne-hautsa eta olio botilak eskatzen dira batez ere. Kanpaina honetan parte hartu nahi izanez gero, lehenbait lehen herriko ikastetxeetan utzi daitezke norberak egindako aportazioak eta botikak eman nahi izanez gero farmazietara jo daiteke.

INMOBILIARIA



BIDAIAK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323



TALAI-MENDI
DEKORAZIOA

- * Eskaiola
- * Pintura
- * Pladur
- * Erreformak oro har

ENKARGUAK: Juan Belmonte, 35
Tel. 929-550574

TXALAPARTA
OPARIAK

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 861018



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19
Tel. 861433
Faxa: 861067



Pulpo, primerako taldea

Pulpo eskubaloi taldea Lehen Mailako taldea da jadanik, Egea de los Caballerosen (Zaragoza) jokaturiko igoera fasean txapeldun izan baitzen. Zumaiarrek Burlata, Banyolas (Katalunia) eta Casetas (Zaragoza) izan zituzten aurkari, baina hiru talde hauek ez ziren gure jokalariei aurre egiteko gauza izan. Guk taldearekin bidaiatu genuen, eta lau egun zoragarri haietan gertaturikoa bertatik bizitzeko aukera izan genuen. Hona hemen Egea aldean gertaturikoaren kronika. Konta daitekeena, behintzat.

Apirilak 22, osteguna. Joateko ordua da eta ez da inor falta! Autobusa Pulpo aurrean dago abiatzeko prest, eta poltsak eta bestelako trasteak sartzen hasi gara: kamerak, botikina, ura, telebista, bideoa... telebista eta bideoa? Txintxi entrenatzaileak partiduak grabatu eta jokalariekin ikusi nahi omen ditu eta itxura denez, hostaleko geletan ez omen dago telebistarik. Bagoaz. Zer gertatuko ote da egun hauetan? Igandean pozez erotuta edota triste eta burumakur itzuliko ote gara? "Txintxi, baloiak hartu al ditugu?" "Baloiak?" Baloirik

gabe goaz. Eskerrak Zarautzen konturatu garen. Buelta Zumaiara. Baloiak hartuta, oraingoan bai, zuzenean Egearaino. Bidaia arintzeko "No hay pelotas" pelikula ikusi dugu. Agur Euskal Herria, kaixo Aragoi. Egeara hurbiltzen ari gara, eta hemen dator Haritz zinta jartzeko esanez. "Arturo erregea...". Egea de los Caballeros, Arturo Erregea, hor ondo ikusi haut Haritz.

Irtisi gara hotelera. Bakoitza bere gelara, afaldu... eta ohera. Benetan. Afaldu... eta ohera.

Apirilak 23, ostirala. Gosaltzera jaitsi gara, batzuk besteak baino beranduago, batzuk besteak baino aurpegi txukunagoarekin. Amaitu eta, bidaiako lehen ezuste atsegina: hiru azafata ditugu zain atarian, txoko ezkutuenak erakusteko prest (herrikoak). Buertaka ibili ondoren, taberna batean amaitu dugu. Coca Colak, Kasak, mostoak, kafeak eta horrelakoak hartu ondoren, jokalaria bazkaltzera. Eta Jexux, Bego eta ni antolatzaileek taldeontzat prestaturiko harrerara. Ez dakit ze kristo egiten duen Baleikeko kazetariak hor, baina aurrera. Eskua

zintzo eman, negar pixkat egin, xaboia eman elkarri (eh Jexux), eta mahaira. Burlatakoak hurbildu zaizkigu zortea eskainiz –gure lehen aurkariak–. Nik zortea beraiantzat gordetzeko erantzun diet, guri irabazteko beharko dutela eta. Ez da burla izan, eta ongi hartu du.

Gehiago gara, dudarik ez dago. Izugarritzko defentsa egin du taldeak eta zazpi gol aurretik gara. Harmailetan, eromena. "Txapel-dunak, txapel-dunak... Pulpopul, Pulpopul..."

Bazkaldu ondoren, urduritasuna nabari da jokalarien artean. Ordu batzuk baino ez dira falta lehen partidua jokatzeko, eta guztiak dakite irabazten hastea erabakigarria dela. Kiroldegira hurbildu gara, eta Jexux, Bego eta ni Federazioko arduradunekin biltzen garen bitartean (hemen jadanik presidentea naizela uste dute, Abelen baimenarekin), jokalariai atsedean hartzen ari dira autobusean, Juan Carlos Perezen musikak baretuta.

Iritsi da partidua ordua. Guztiok urduri gaude. Irabazteko gauza izango ote gara? Partiduari ongi ekin diogu, baina nafarrak ez dira kikiltzen eta

atsedenaldian aurretik ditugu. "A ze astapotroak diren Burlatako hauek", dio batek. Berdin du, gu hobekak gara. Bigarren zatian markagailuari buelta eman ezinik dabil taldea, baina azken minutuetan, zirt zart! lau goleko alde lortu dugu eta partidua gurea da: "In diu, in diu, in diu!!!". Lehen partidua baino ez da, baina pozez zorutzen goaz hostal berrira. Egea utzi eta Gallur herrira goaz. Ezin izen aproposagoa gora egin nahi duen taldearentzat.

Lehenbailehen denok afaltzera eta ohera, bihar goizeko 10:30etan baita partidua. Afaldu..., eta ohera.

Apirilak 24, larunbata. Goizeko zortziak dira, eta denok gora. Kataluniako Banyolas taldearen aurka jokatu behar dugu gaur, baina, egia esan, 10:30ak ez da inori bainu bat emateko ordurik egokiena. Autobusa hartu, eta bagoaz Egearantz. Eguraldi ederra, txoriak kantuan, ibaiako urak garden... eta autobusa 40tik pasatzen ez dela. Zerbait gertatzen da eta Joxe Mari txoferrak ezin asmatu (Bego, esku horiek!!). "Abiadura honetan iritsiko al gara partidura?". Kalkuluak egin, eta larri ibiliko garela ikusi dugu. Jokalariai bertan aldatzea erabaki du entrenatzaileak. Halako batean, Casetas taldearen autobusak aurreratzen gaitu, eta gelditu egiten da zerbait gertatzen dela ikusita. Lekua



balezulo
importaturiko errofa eta artisautza

Basadi, 3

Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449

BARRENETXEA
Garraioak

GARRAIO ASTUNAK

BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25 Tel. 862073

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 862051

DORNUTEGI

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK

EGOKI


Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

EGUZKI
PUB

Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B



badutela eta hantxe doaz gure jokalariaik.

Jainkoari eskerrak, ondo eta garaiz iritsi gara guztiok.

Partidua ezin hobeto hasi da. Aurretik gara laupabost goleko aldeaz. Baina aurreko egunean bezala behera egin eta Banyolasek buelta eman dio partiduari. "Hau da sufritu beharra!". Partiduak ihes egingo digu. Azken jokaldia da eta baloia guretzat. Zortzi segundo baino ez ditugu jokaldia burutzeko. Hor doa baloia Berixentzat... gola!!! "In diu, in diu, in diu, in diu!!!". Berdinketa lortu digu azken unean, bihotza ahoan eta

koxxkobilok eztarrian genituenean. Ametsa gero eta hurbilago.

Egun osoa dugu aurretik. Zer egin? Bazkaldu ondoren pub dotore batean sartu gara. Jokalariaik leher eginda daude, eta butaketan luze-luze eginda jarri dira. Batzuek lo egiten duten bitartean, beste batzuek ospatu beharra zegoela erabaki dugu. "Nagusi, atera puro horiek!!!". Gero, afaltzera Gallurrera. Eta, badakizue, afaldu... eta ohera.

Apirilak 25, igandea. Azken eguna. Gaur etxeko taldea dugu aurkari, Casetas. Kalkuluak egiten hasi gara,

eta guztiok ondorio bera atera dugu: irabazi eta gurea da. Urduritasuna ezkutatu nahian edo, jokalariaik aurreko egunetan baino alaiago daude gosarian. Inork ez du partiduan pentsatu nahi. Gaur autobusak ez digu ezustekorik eman, eta ongi iritsi gara Egeara. Jokalariaik aurpegiak aldatzen ari dira. Tentsioa nabari da. Badakite gaurko partidua jokatu duten garrantzitsuena dela. Gainera, ez dira bakarrik izango, harmailetan Zumaiatik etorritako 30 bat lagun izango baitituzte alde, bonboa eta guzti.

Paretean dagoen ikurrina hartu eta ohorezko itzulia eman dugu, arraunean onenak garela erakutsi... eta Kopa jaso, ahaztu baino lehen.

"Ekin gogor, mutilak!!!". Partidua ezin hobeto hasi da. Aurretik gara, eta Casetasek ez du gola egiteko modurik aurkitzen. Harmailetan ere, jaun eta jabe gara, nahiz eta etxekoak askoz gehiago izan. Dena ezin hain erraza izan, ordea. Casetas aurretik dugu

TXOKO ABERNA

Artadi auzoa
Tel. 862189

Ur-gintza SL

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTALAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUGELAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g Tel. 148082
20740 IRAETA - ZESTOA Faxa: 148124
78 postakutxa

ARozTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberitzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Basusta bidea z/g Tel. 143505

AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06

OSKARBI KIROLAK

Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kiraztelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoa,
Balarazkoak
Nekazaritza Injineru Teknikoak

TXINGURRI
Koop. Elk.



gelditu eta kantxan sartu gara, jokalariekin, nahiz eta antolatzaileek ezin dela sartu esan. Paretean dagoen ikurrina hartu eta ohorezko itzulia eman dugu, arranean onenak garela erakutsi... eta Kopa jaso, ahaztu baino lehen. Eguna biribiltzeko, antolatzaileek zozketatzen duten bizikleta ere Zumaiara dator. Txinori egokitu zaio, jokaterik izan ez duen bakarrari. Batzuetan zorreak badaki nora jo.

Kabitu ezinik gaude. Bonboa etengabe

astinduz, milaka aldiz gogorarazi diegu Egeako biztanleei txapeldunak garela. Txanpainaz blai, barrutik eta kanpotik, bazkaltzera goaz, jokalaria, taldeko arduradunak eta jarraitzaileak, denak bat eginik. Txintxik emozioz beteriko diskurtsoa bota du, eta

bagoaz etxera. Bidaian denak ziplo gelditu gara. Eurria egiten du kanpoan, eta haizea. "Gora mutilak, Zarautzera iristen ari gara!!". Eguzkiak ongi etorria eman nahi izan digu, eta zarautzarrei gure Kopa erakusteko prestatu gara. "Tautala txorua, balia hiltzera...". Getariarrei ere erakutsi diegu, eta azkenean, Zumaiara gara. Txaranga dugu zain, Gurutze Gorriaren parean. Gozatzeko unea da. Nekeak eta minak ahaztu eta Kopa horretatik litroka txanpaina edateko prest gaude. Gaur ez dugu afalduko, eta ohera berandu joango gara, gaur bai, gaur parranda egin behar dugulako. (Eta bihar, zaldunen ajea).

Oharra: erreportaia idatzi duen honek eskerrak eman nahi dizkio Pulpoko arduradun eta jokalariei, lau egun horietan taldekoa sentiarazi dutelako. Zumaiako herriari dei egin nahi dio kantxan lortutakoa diruagatik gal ez dadin. Aupa mutilak!!!

◀ GORKA ZABALETA

atsedenaldian. Bigarren zatia hasi da. Gehiago gara, dudarik ez dago. Izugarrizko defentsa egin du taldeak eta zazpi gol aurretik gara. Harmailetan, eromena. "Txapeldunak, txapeldunak... Pulpopul, Pulpopul...". Amaitu da partidua: "In diu, in diu, in diu, in diu!!!". Ezin gara harmailetan

Estetika zentrua

- Gorputzerako tratamenduak
- Aurpegirako tratamenduak
- Depilazio elektrikoa: Bleud metodoa zunda (horratzark gabe)
- Argizari epel bidezko depilazioa
- Makilaje iraunkorra:
 - betileak
 - begiak
 - ezpainak
- Oin erreflexoterapia

CORO PRIETO
Esteticista

Bonifazio Etxegarai plazatxoa
Tel: 943 86 13 22

Kontsulta medikoa

- Azaleko arazoak: psoriasis, dermatitisa, aknea...
- Min arazoak
- Dietak
- Barizeen esklerosamendua
- Liposukzioa
- Bularretako kirurgia

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458

ekin
elektrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antenak - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía

Televés
Instalador
Oficial

MoviStar

MoviLine

CANAL+

SATELITI
CANAL DIGITAL

Erribera, 18
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777

expert



ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etkezaretta, 6

Tel. 861078

zein da SanTelmoetako ajea gainditzeko zure errezeta?



Joselu Oiarzabal

Lo egin "a sako".



Igone Saizabal

Ni San Telmoen biharamunean parrez-parrez esnatu nintzan. Ajea edukitzen dutenentzat Itzurunen buelta bat ematea izan liteke soluzioa. "Prueba conseguida"



Eider Oliden

Ajea ez izateko segi edaten eta edaten. Nik ez det ajea sentitzen.



Malua

Bitamina C. Zer gehio behar dek ba!




Fernando Garcia

Zumo naranja bat eta lo asko egin.



Jone Larrañaga

Ernio igotzia. Gaur egin det proba eta resaka bapatean joan zait.



Auto-konponketak
ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT



Amertec

Erribera kalea, 6

Tel./Faxa: 861707


Jose Luis Elosua:

“Jenerazio berri bat ari da jubilatzen, gauza berriak egiteko gogoarekin”

Urte hasieran Junta berria osatzeko hauteskundeak izan zituzten Beheko Plaza Jubilatu eta Pentsiodunen Elkartean.

Jose Luis Elosua hautatu zuten lehendakari kargurako.

Bazkariak, bidaiak eta tute txapelketak gustoko ditu jubilatutuek gehienak bezala, baina ideia berriak ere ez zaizkio falta.



Estreintatu berria duzu Juntako lehendakari Kargua, baita jubilazioa bera ere. Zer moduzko estreinaldiak izan dira?

Onak. Gustora nabil behintzat.

Karguak lan pixkat ematen du, baina ilusioa gehiago, eta jubilazioarekin ez daukat inolako kejarik, alderantziz. Goizean nahiko lo eginda bederatzia bederatziz t'erdik aldean jeiki, ederra da hori, eta Juntako lanekin ibiltzen naiz atzera eta aurrera. Arratsaldean berriz, instalazioak aprobetxatzeko, seiretatik zortziretara billarrean ibiltzen gara lagun kuadrila bat...

Jubilazioarena bakoitzak bilatzen dion martxaren arabera izaten dela iruditzen zait. Gogoratzen naiz nere aita jubilatutuek zenean hasiera batean zer egin ez zekiela eta triste xamar ibili zela. Baratzatxo bat jarri zezakeela komentatu genion, eta hortan gelditu ginen, baina handik hilabete pare batera baratzagatik galdetu eta 'keba'

esan zidan, 'ezertarako denborarik ez daukat eta'.

Antzerki talde punteroa, hainbat lehiaketa irabazi dituen korua, yogako taldea... benetan jubilatutuek potentek daukagu herrian.

Zumaiar kasta da hori. Gero kontuan hartu behar da herriko jubilatutuek elkarteak 25 urte bete zituela iaz, eta zentrua Gipuzkoan ireki zen lehenengoa dela. Urte asko dira, lan asko egin da, eta esperientzia zabal honi esker aurrera xamar ere ibili ohi da zentrua.

Zeintzuk dira Beheko Plaza Pentsiodunen Elkarteak antolatzen dituen jarduera nagusiak?

Hitzaldiak. Euroari buruz izan zen joan den astean azkena, bazkariak eta egun bateko irteerak urteko edozein garaitan antolatzen dira. Txapelketak ere, kartak, ajedreza, toka eta abar, urteko edozein garaitan. Udaberrian eta udazkenean zortzi eguneko bidaia

bana. Maiatzaren 20an Lloret de Marera doaz aurtan. Eta omenaldi astea ere, ekainaren 20aren bueltan, nahikoa ospakizun garrantzitsua izaten da.

“Jubilazioa gauza ederra da.”

Gero tailerrak daude. Yoga, gimnasia eta eskulanak. Eta zentruak, Diputazioak jarrita, gizarte laguntzailea, podologoak, masajea, pelukeria eta kafetegiarekin zerbitzuak ere eskaintzen ditu.

Azkenik lehenago komentatzen zenituen antzerkia eta korua daude. Aurtan antzerkirako proiekturik ez da sortu, baina ez daukagu bide hau alde batera uzteko asmorik aurreko esperientzia guztiak oso positiboak izan dira eta. Korukoak, berriz, jo ta gogor ari dira entsaioetan, aurtan jubilatutuen urtea ospatzen dela eta

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6

Tel. 943 14 33 95

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330



Euskadi mailan egingo den lehiaketa batean parte hartzeko.

Zeintzuk dira Juntaren egitekoak?

Hamar lagun gara Juntan, eta geure lana sekzioka banatzen dugu. Momentu honetan lau sekzio daude: eskulanak, txapelketak, antzerkia eta hitzaldiak, eta Nagusilan. Lehenengo hiruretan hiruna kide biltzen dira, gizon eta emakume nahasian, eta azkenengoa kide bakarrak darama.

Sekzio bakoitzak bere alorreko ekimenak programatu eta hauei dagozkien aurrekontuak egiten ditu. Gero Juntak programa eta aurrekontu

hoiek Elkartearen Asanbleari aurkezten dizkio, eta honen onarpena jaso ondoren zentruko Zuzendariari ematen zaizkio Diputaziora eraman ditzan. Eta behin Diputaziotik dirua jasotakoan berriro ere sekzio bakoitzari tokatzen zaio berak programaturiko ekimenak aurrera eramatea.

Ze berrikuntza nagusi ekar ditzake Junta berri honek?

Prejubilazioekin eta postu askotarako jubilazioa goizago jartzen ari direnez lehen baino jende gazteagoa ari da sartzen Elkartean. Gazteagoa ez ezik preparazio gehiago eta mentalitate irekiagoa duen jendea ere bada, eta ez lehenagokoa baina hobea delako, beste jenerazio bat denez beste bizimodu bat izan duelako baizik.

Honek ze nahi du esan?, ba orain, jende honekin, eta betiko aktibitateak mantenduaz, posibilitate gehiago daudela aktibitate gehiago egiteko, eta aktibitate berriak sortu behar direla hain zuzen ere jende honek beste behar batzuk badituelako.

“Hurrengo jaietan olarrua patatakin”

Juntan ere jende gaztea gaude, eta Elkartea herrira zabaltzearen helburua hartu nahi izan dugu geure lanerako filosofia gisa. Arriskutsua iruditzen

zaigu zaharrak ghetto bihurtzea. Zaharrak zaharrekin juntaz gero ez dute hitz egiten hemengo mina edo hango pastila besterik. Eta gaztea sartuz gero, deportea edo zinea, mila gauza sor daitezke. Argi dago konpartitzen duena beti aberatsago, sanoago eta biziago ibiliko dela aparte eta itxita dabilena baino.

Zentzu horretan egingo ditugu berrikuntza nabarienak.

Zehazki ze bide ikusten dituzue irekitze horretarako?

Orain arte egin duguna zentruko instalazioak beste jende bati irekitzea izan da, batik bat hitzaldietarako. Kultur etxeak bere egitaraua bidaltzen digu antolatzen ditugunak beraienekin ez kointziditzeko, eta honela geurea beraien eskaintzaren osagarria izan daiteke, eta haiena bezala herri osoarentzako eskaintza izatea nahi dugu.

Hilabete honetan zentruan emango diren hitzaldiak adibidez Udaletxeak antolatutakoak dira. Baimena eskatu ziguten eta ez genuen arazorik ikusi: maiatzaren 11 eta 13an alimentazioari buruzko hitzaldi bana, eta maiatzaren 18 eta 20an autoenpleguari buruzkoa bat eta emakumeak lan munduan sartzeari buruzkoa bestea.

xirula
 Argazki eta bideo erreportaiak
 Errebelatzeak
 Kamarak
 Musika
 Erribera kalea z/g Tel. 861705

ZALLA
 Taberna - Erreteria
 * plater konbinatuak
 * otartekoak
 * oilasko erreak
 San Pedro, 4 Tel. 862387

Zerbitzu Ofiziala
ZUMAIA MOTOR
 Santixo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143

GANBARA
 TABERNA
 Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

KAFETEGIA GAROA JATETXEA
TXOMIN AGIRRE KAIA
 TEL. 943 86 21 81

gofi
 haur jantziak
 Amaiako plaza z/g Tel. 860959



Azkenengo hauek agian geuretzat ez dute probetxu haundirik, mundu hori atzean utzi baitugu, baina ez digu inongo kalterik egingo instalazio eder hauek gazte batzuek ere aprobe-txatzen badituzte.

Beste bide bat talde bezala herriko bizitzan parte hartzearena da. Azkenengoa beste taldeei bezalaxe etorri zitzaigun Udaletxetik San Telmoak zirela eta ea aportaziorik bageneukan, eta olarru zopan lehiaketa egitea okurritu zitzaigun. Lehenagotik egiten zen lehiaketa hau, baina jubilatuegana mugatzen zen partaidetza, eta oraingoan herriko Soziedadeei irekia egitea erabaki genuen. Oso ondo irten zuen, festa polita izan zen, eta ETBko kamerak ere izan genituen grabatzen.

Hurrengo baterako olarru zopa bezala olarrua patatakin jarriko dugu igual. Olarrua promozionatu egin behar da Zumaia bezala. Errazago izango da gainera, olarru freskoa errazago inguratzen baita lehorra baino.

Eta beste zeozer okurritzen bazaigu ba hura ere egingo dugu.

“Ez dugu jublatuena ghetto bat izatea nahi”

3 Zenbaitetan jublatuak gizartearentzat kasik karga bat bezala ikusi izan dira. Emaiozu buelta tortillari, zer eskaini diezaioke jubilatuen kolektiboak gizarteari?. Esperientzia eta denbora librea.

Lana, haurrak hazi, gurasoak zaindu, gizarteko ekintzetan parte hartu, denak etapa berean izaten dira. Eta horrela ibiltzen da jendea estresatuta, denborarik gabe eta ezin iritsita.

Gero kolpetik denetik libratzen zara. Guk denbora piloa daukagu gizarteari eskaintzeko, ekintza kultural eta sozialetan parte hartzeko, eta esperientzia eta preparazioa ere nahikoa. Lanean zabilatzatenak iristen ez zaretenerako laguntza ederra emateko moduan gaudela iruditzen zait... .

Lantzen ari garen Nagusilan proiektuak ondo ilustratzen du esan nahi dudana. ‘Jubilados voluntarios’ deritxon ideian oinarritzen da proiektu hau, eta Ameriketatik kopiatutako sistema bat da. Parroki mailako taldeekin, Caritas eta gazte talde bat, eta Udaletxeko Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean kuadrila bat preparatzen dugu behartsuei konpainia egiteko. Ezinduta daudenei kalera ateratzen lagundu, gaixoekin arratsalde pasa egin eta horrelakoak. Noski gure lan



hau ezer kobratu gabe egiten dugu, eta lan honek ezin du soldatapeko lanposturik kendu.

Eibar, Irun, Zarautz... herri askotan egin da eta agrupazio bat ere badago probintzi mailan denak koordinatzen gaituena. Sistema polita da. Ikusten denez Amerikanoek badituzte gauza onak ere, ez bonbak bakarrik.

3 Eskaini dezakezuenaz aritu ondoren eskatzea tokatzen da orain. Jubilatuekiko gizarteak duen jarreran ze aldatuko zenuke?

Egia esan nahiko tratua ona ematen zaigu. Jendeak maite gaitu, eta aurreko jubilatuen lanaren fruitua da hori. Ez daukagu kejarik.

◀ ANTOKA AGIRRE

English School
Harvest

San Jose, 11 bis Tel. 143334

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

- denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabrilari eta herriko argietan

Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402



TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409

gure txokoa

- taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea



7.




AITOR IZAN DA, NIK EZ DUT EZER EGIN

YA...

EA HONELA ESPABILATZEN ZEAZTEN!!

ZASTA!

8.



JOÑO ESPI! IKUSI ALDOK?

BAI, IKUSI DIAT

GOGOR EGIN BEHAR ZAIE, BESTEA EZ DUTE INIZ IKASIKO

BAI, BAINA KRISTON CABEZOLA


9.



JAJAJA! SEKULAKDAI DESTE BURU BAT HAZI ZAIT A TEDA OSTIA

EZ DAGO ESKUBIDERIK

10.



11.



JEANGO AL SUTUK IREKI BERRI DUTEN TABERNA HORRETA?RA?

ADOS.

12.



OIERREN PINTXO HAUEK DEMASA PASA ZIBEK. NIK EZ DEK PINTXO BAT NAHIKO, EZ?

JA, JA, JA.

OIERREN TABERNAN BERTSO SAIO INTERESGARRIA ESPINETE ETA RAULEN ARTEAN DGINUA: HAIZEAK BIDALI DU... .



PINTXOZ JOSIA NAGO HORI DA NORMALA GENETIKA MUNDUA GAOZA NATURALA ESPINETE IZATEKO EZ NAUK NI MAKALA ZU BERRI Z CORMORAN BAT UMEKIN ZITALA



BONBILAK POSKATZEKO TIRAEBOZA HORI UMEENTZAKO EZ DA APROPOSA NI EZ NAIZ CORMORAN BAT EZ NAIZ NI LARROSA RAUL BAT NIK IZENA FERRARI TESTAROSA

13.

san telmoak 99 argazkitan



Eguzkia lagun izan genuen lehen orduetan, eta txupinazioan jende ugari bildu zen (urtero bezala, batzuk ez ginen iritsi). Zzzzzzzzz...pumm!! Denok Erribera kalera, arinarin, festak hasi dira eta!



Txupinazioaren bezperako bertso saioa bikaina izan omen zen zaleen arabera. Hala ere, "aditu" baten aburuz, Jon "Amaia" etxekoa aritu zen makalen. Kaso egin beharko diogu.



Kantu Lehiaketak izugarrizko arrakasta izan zuen. Taldeek maila handia eman zuten, eta azkenean Erkibe taldeak lortu zuen lehen saria. Dударik gabe, lehiaketa honek jarraipena izango du datozen urteotan.



Erribera kalean etengabe izaten den prozesioa ahaztu gabe, ezin San Telmokoia alde batera utzi. Usadioa sendo mantentzen ari da, eta urtero bezala jende ugari abiatu zen santuaren atzetik ermitaraino.

Olarru zopa lehiaketak lehen aldiz izan zuen aurten. Sukaldari finak ditugula argi gelditu zen, eta guztien artean Itxas Gain Elkarteak nabarmendu zen.



HELBIDE BERRIA!!

Basadi, 7 behea
Tel./Faxa: 943 14 34 53

IHINTZA
taberna

TE: 860973
Ortega y Gasset, 3



Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24



"Listo. Polka!". "Isil-isilik dago, kaia barrenean, untzi txuri polit bat uraren gainean..." Hori duk/n hori gerra eman beharra! Danborradan kanturako gogoia sartzen zaion koadrila hori korura eraman beharko diagu, Agus!



Aldatz Gorakoek zuzendari aparta aurkitu zuten San Telmoetarako. Danik ederki maneiatu zituen. hori bai, protagonismo guztia kendu zien, eta hori ez da komeni.



Gaztetxoek primeran pasa zuten futbolinean. Gaztetxoek, Joakin!



Tamalez, Beti Gaztek bere jarduera utzi egin du, eta aurten Zarausitik etorri zitzaizkigun dantzariak. Neskek arraunean ere badakitela erakutsi ziguten.



Azken urteotan jendetza izugarria biltzen da festei datorren urtera arte esateko. Bandera jaso eta akabo parrandak. Urte osoan txintxo-txintxo etxean, amatxori eta aitatxori lagundu... (oraindik ez zaidak/n mozkorra pasa!!)



Erribera kalea Tel. 861523

ILEAPAINDEGIA
IRUITZ



San Telmo, 12
Tel. 860760

ITSASKI
SUPERMERCATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

BALEIKE

1999ko maiatza. 57. zenb.

Batzuentzat San
Telmoak
sakratuak dira,
urteko tentsioak
askatzeko terapia
ezin hobea.
Kandidoren
aurpegia ikusterik
baino ez dago,
pozez betea (pozez
eta zerbait
gehiagoz). Ez da
antzezpena.
Astindu gizona,
biotako bat lehertu
arte!



Erregea beti errege.
Fredya lasai
antzean zebile-
lakoan, San
Telmoetan neurria
eman du aurten ere.
Indurainek egiten
zuen bezala, hau
ere urteko zita
garrantzitsuenerako
prestatzen da. Hori
bai, errodajea ondo
egina iristen da
(pasata ere bai).




Inñigo badakik,
gehiegi puztuz
gero azkarregi
lehertzen duk,
baina ez bazaik
puzten biberioia
eman beharko
diok. Zorionak!



Putxa, korason partio al dakak, edo
izugarritzko bihotzerrea!? Martini
panpina eskatu eta kitto. Edo bikar-
bonato pixkat. Aukeran.

"Scotland free,
Scotland free!".
Apustua Bixen
ere begiak
zabandu ezinik
dagoela. Insalus
botila hori...
nahastea txarra
dela! Egun osoa
garagardoa
edaten eta bat-
batean ura...
Horretrek egingo
zian kalte.



ITSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingelesko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak
Basadi, 2 Tel. 862373

Itzurun
ATEAK

Itzurun zuhaitzbidea, 2
Tel. 861565 - 143446

ITZURUN
KIROLAK

Amaia plaza, 13 Tel. 860758

san telmoak 99 argazkitan



Bi japoniar hauek Kazxiano baino famatuagoak dira jadanik. Trikitizale amorratuak direla diote (hala azaldu zuten Bertatik Bertara saioan), baina gure ustez zurruta dute benetan gustoko. Urtero, apirilean, trikiti musika erostera etorriko direla erabaki dute.



Salda bero hori fundamentu gehiagorekin hartu behar da, Juan Luis! Hori bai, parrandarako nekeak gozatzeko onena ohea. Baieeetz.



*"Athletic txuri ta urdina, Trapaia txapeldun...!"
Batzuei arrakastaren aparra burura igotzen zaie, eta gero piura horrekin ibiltzen dira lotsagabe. Galtzak jasota, bazter batean ezkutuan, segada egiteko prest. Gorostola, nahikoa diagu!*



Lo-lo umeak. Urtebeteko amets goxoa izan eta laister iritsiko dira 2000. urteko San Telmoak!

ilepaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 862083

Joseba Ossa

ITZULPENAK

euskara . gaztelera . katalana
ingeleza . frantsesa

Tel./Faxa: 148306
E-mail: bakun@encomix.es

Loredenda

JEMAR

LANDAREAK . LOREAK
HAZIAK . ZERAMIKAK

Erribera, 1 Tel. 860375



Trapaia Tabernak irabazi du aurtengo plaieroetako txapelketa

Trapaia taberna da aurtengo ligako txapelduna plaieroetan

Kopan garaipena Kabi Tabernarentzat izan da

Sailkapenak

Liga

- 1- Trapaia Taberna
- 2- Basterrikalde
- 3- Hiru Ezkur
- 4- Ederki Herri Biltokia
- 5- Ekin Elektrizitatea Buitraker
- 6- Txikixa Pub

Kopa

- 1- Kabi Taberna
- 2- Xolskaer
- 3- Axier Kirolak
- 4- Ipurbeltz Gaztañaga (Zestoa)
- 5- Inpernupe
- 6- Muebles Artetxe
- 7- Siete Mares
- 8- Bar Restaurante Basarri

Hamalau taldek hartu dute parte aurtengo plaieroetako txapelketan eta zazpi hilabete luzez jokatzeko egon ondoren, azken partiduak ohitura den bezala, San Telmoetan izan ziren, hilaren 17an hain zuzen ere. Ligako finalean, Trapaia Taberna eta Basterrikalde talde azkoitiarra neurtu ziren eta Kopan berriz, Kabi Taberna eta Xolskaer.

Jende asko hurbildu zen hondartzara neurketak ikustera nahiz eta eguraldi aprobezia ez izan, batez ere hondartza aldean zegoen haize bortitzarengatik. Futboleko egiteko ere ez ziren baldintza hoberenak baina hor jardun zuten lau taldeak gogo biziz bi tituluak eskuratzeko lehia bizian.

Bi finalak estuak eta orekatuak gertatu ziren. Ligan, Trapaia, 1-0eko emaitzarekin mendean hartu zuen bere arerioa; horretarako ordea, majo sufritu behar izan zuen. Defentsa sendoan oinarrituta azkoitiarrek zirrikitu gutxi topatu zituzten gol

aukerak sortzeko eta zumaiarrek beren esperentziaz aprobeztatuta, nahikoa izan zuten gol bakarra finala beraien alde jartzeko. Hau bigarren zatian iritsi zen Jexus Anjel Mendizabalek, "Txefu"-k egindako burukada bikain bati esker.

Basterrikaldek berdinketa lortzeko aukeraren bat izan zuen baina baita Trapaia abantaila areagotzeko ere; bukaeran alabaina, markagailua ez zen gehiago mugitu eta 1-0eko emaitza horrekin zumaiarrek nagusi izan genituen.

Kopan berriz, Kabi Taberna bigarren fase osoan bezala, oso sendo azaldu zen eta arazo handiekin izan arren, 3-2ko emaitzarekin gailendu zen Xolskaer taldearen kontra jokaturako finalean.

◀ IGOR URANGA



HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A

Tel. 862081

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10

Tel. 861853



Falta jaurtiketa honen bitartez, Trapaiak partidua erabakita uzteko aukera izan zuen baina Joakin Gorostolak ez zuen asmatu baloia sare barrura botatzen.

Alfredo Salveten aurpegiari igarri daitekeen bezala, finalak kontzentrazio osoz bizi izan ziren.



Batzuek beren garaikurra jasotzerakoan ez zuten poztasun gehiegirik erakutsi... Odon torero!!



Kabi taberna Kopan irabazle...

...Xolskaer galtzaile baina guztiak festetan parranda zale!



Plai-eroak

Amaitu berria da aurtengo plaiero denboraldia eta baditugu Liga eta Kopako txapelduen berriak, hala ere ez nituzke bi talde hauek soilik zoriondu nahi, parte hartu dute talde guztiek merezi baitituzte zorionak. Antolatzaileari (Zumaiaiko Futbol Taldea) dagokionez ez gaude zorionak emateko moduan, agian antolatzaile deitzea ere gehitxo litzateke gainera partiduen egutegia egin, hondartzako lokaleko atea ireki eta sariak eman soilik egien duenari. Oker egon ninteke, baina zer gehiago egin dute? Partehartaile gehienak ez daude batere gustora gauzak nola joan diren ikusita eta parte hartzen badute kirol hau gustatzen zaielako eta jokatzeko gogoia dutelako izan da. Dena den, puntu batzuk azpimarratu nahi nituzke:

• **Epailea.** Ez zait legezkoa iruditzen asteburutan partidu batzuk jokatzeko asmoarekin apuntatu den jendea (ia talde gehienak) epaile lanetan jartzea. Oraindik okerrago iruditzen zait, ordea, epaile jarri nahi ez duena Txapelketa botatzearekin mehatxatzea. Agian epaile lanetan aritzeko ikastaro bat antola liteke udaran...

• **Egutegia.** Guztiok dakigu zer gertatu zen finalerdietan, Ostegun Santua zen eta gehienek oporretara joateko asmoa zuten. Jokatzeko eguna aldatzea ezinezkoa izan zen, Txapelketa hasteko ba omen genekien egun horretan jokatu zela, egia da hori ere. Baina egutegia egiterakoan ez al zekiten Aste Santuan jende gehiena kanpora joaten dela eta oso egun txarrak direla jokatzeko?

• **Izen ematea.** Txapelketako izen ematearekin kalkulu batzuk egingo ditugu. Talde bakoitzak 30 mila pezeta ordaindu zuen, 12 talde zirenez 360.000 pezeta poltsikoratu zituen ZFTak. Inork ikusi al du diru hori hondartzan gastaturik? Diru horren erdia gastatuko balute ere asko konformatuko liratekeela uste dut. Agian diru hori ZFTren harrobira zuzenduta egongo da, baina nik ez dut ordaindu ZFTko harrobia bultzatzeko, plaieroetan erosotasun minimo batzuk izan ditzagun baizik. Beraz kontuak argi eta garbi azaltzea beharrezkotzat jotzen dut. Gainera, iruditzen zait diru horrekin epaileak ordaintzea posible dela. Hala ez balitz, objetoreek ere zerbait egin beharko dute, ezta?

Espero dut gutun honek ZFTri zer hausnartua emango diola, beti ere aurrera begira hobetuz joan daitezen. Bukatzeko aipatu nahi nuke ZFTko ordezkari batek behintzat denboraldi osoan eduki duen jarrera harro eta agintzailea, Besteri gabe, agur bero bat Baleikezaleoi.

I.A. (NAN: 72.458.392)

taberna
JUSTA
eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

KABI
TABERNA - ZUMAI
Tel. 143379

KALARI

J
A
T
E
T
X
E
A

- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 862517

Oier Aizpurua Kopako Txapelkun izan da K-4 modalitatean



Oier Aizpurua piraguista zumaiar gaztea Kopako Txapelkun izan da K-4 modalitatean Sevillan jokaturako proban. Txapelketa apirilaren 16tik 18ra bitartera burutu zen eta ontzi

Oier Aizpurua, Kopako Txapelkun

horretako partaide gisa, 200 metroko lehian irabazle suertatu ziren eta 500 metroan aldiz, laugarren.

Oierrek Espainiako selekzioarekin lortu du arrakasta hau eta etxetik urrun aspaldidanik dago kontzentratuta selekzioarekin. Egindako entrenamendu saio gogorrek badirudi beren emaitzak eman dituztela eta honek oraindik meritu askoz handiagoa du, kontuan hartzen bada behintzat kirol hau amateur mailakoa dela eta beste kirol batzuekin

alderatuta, ez duela diru gehiegirik mugitzen. Horregatik zorionik beroenak merezi ditu Oier Aizpuruak.

Bestalde, Zumaiako Itxas Gain taldea ere paper ona burutzen ari da. Apirilaren 11n jokaturako Euskadiko Txapelketan titulua eskuratu zuen emakumezkoetan eta epaileen erabaki eztabaidagarri batengatik ez balitz, gizonzkoetan ere emaitza berbera lortuko zukeen.


Bateletan bikain

Amaitu da batelen aurtengo denboraldia. Aita Mari arraun taldeko ontziek lan aparta burutu dute, izan ere infantil mailan Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketak eskuratu dituzte. Azken proba honetan ere kadeteak hirugarren postuan sailkatu ziren.

Espainiako Txapelketan ere lan ona egin zuten kadete eta infantiletako batelek. A Coruñan jokaturako estro-

padetan ordezkari euskaldunak ez ziren uste bezain fin ibili, baina bai gure ordezkariak. Infantiletan zumaiarrak hirugarren postuan heldu ziren helmugara, Mecos eta Meirako ontzien atzetik; brontzezko domina erdietsi zuten beraz. Kadetetan berriz, Zumaiak laugarren postua eskuratu zuen kontsolaziozko txandan.

Pala txapelketa bere bigarren zatian sartuko da



Pala Txapelketa

Datorren astean amaituko da San Pedro Pala Txapelketako lehenengo fasea gizonzkoen txapelketan. Bikote batzuek lortu dute dagoeneko sailkapena ligaxka horretarako eta gainontzekoek San Pedrinen aritu beharko dute. Emakumezkoetan berriz, txapelketak aurrera darrai, baina hemen ere dagoeneko lehenengo postuak poliki-poliki finkatzen hasiak daude. Konpetizio gogorra benetan hemendik aurrera hasiko da.



Kresala
— edergintza —
Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

KUKUTZ
serigrafia
*kamisetak
*txiskeroak
*paperezko poltsak, e.a.
baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69


LEIZE
taberna
Juan Belmonte, 6 Tel. 860415

Gure zaborren merkealdia bukatzeaz dago, presta gaitzen benetako balioa ordaintzera!

Zabortegeien lege berriak zabor tasa garestitzera behartzen du

Zer egiten dute zabor hauekin? Egoki tratatzen al dituzte?

Gaur egun poltsa guztiak, zabortegeian pilatu ondoren, zabaldu eta txikitu egiten dira, ondoren lur kapa fin batez estaliz. Zabaldu eta txikitzearen arrazoi nagusia, ahalik eta lur sail gutxiena hartuz zabortegeiaren bizitza luzatzea da. Zaborrak estaltzen animaliek ezin dute zabortegei elikatze leku bezala erabili, horrela, zaborretatik elikatzeak ekarriko lituzkeen arriskuak baztertzea lortzen da. Gure zabortegeia, Urtetakoa, 2006. urterako beteta izango dugu, eta hortik aurrera beste zabortegei batera bideratu beharko ditugu gure zaborrak.



Arazoa gehiago larritzeko, gure herrietako zabor kopurua azken 15 urteotan %50 igo da.

Nahikoa al da egiten dugunarekin?

Europatik datorkigun lege batek ezetz esaten du, eta gure ustez ere hala da. Ezin diogu gure ondorengoei horrelako herentziarik utzi, denon esku dago arazo honen irtenbidea, eta horretarako hor ditugu gure esku zenbait zeregin: birziklapena, zaborren berrerabilpena eta zaborren murrizpena.

Gure zabortegeia kontrolpean badago ere (metanoa, lixibiatuak...) estatu

espainiarrean 8000 zabortegei daude kontrolik gabe, lege berri honekin guztiak legez kanpo egongo lirateke, eta hauek guztiak legeztatzeke diru kopuru handia beharko da. Zergak igo egingo direla, alegia.

Europako Parlamentuan onartzeaz dagoen lege honek, zabor tasak garestitzea ekarriko du. Guztiz beharrezkoa da, zaborrekin egin beharreko lanak hobetu eta gure ingurunearenganako eraso gutxitu eta ahal bada, arazo hau ezabatzeko.

Presta gure zaborraren benetako balioa ordaintzera.

◀ **ARAZI TALDEA**


AIZPURUA
LIBRERU
DENDA

kmk99
Oreretan
materiala salgai!

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 861569



kamisetak
mantalak
galtzerdiak
eta abar



Loitz

* Eskola eta
bulegorako materiala
* Enkoaderazioak
* Fax publikoa
* Aldizkari eta opariak

Erribera, 4

Tel./Faxa: 143422

V. Baleike komiki lehiaketa

Aldizkaria bezalaxe, gure komiki lehiaketa ere iritsi da bosgarren urtera, inoiz baino osasuntsuago, gainera. Oinarriek ia ez dira aldatu: txuri-beltzeko lanak, A-4 neurriko 2 orrialde edota A-3ko 1, euskaraz...

Sariak aldatu egingo dira, ordea, Udalaren babesari esker diru-sariak dezente hobetzeko asmoa dugulako. Ekaineko eta uztailako zenbakietan argitaratuko ditugu oinarriak eta gainerako zehaztasunak.

Epea uztailaren amaieran itxiko da. Bien bitartean, hasi ideiak pentsatzen!

ZINE FORUM



Maiatzak 20, osteguna
I want you (1998)

Zuz: Michael Winterbottom
Akt: Rachel Weisz, Alesandro Nivola

Britainia Handiko zinegile interesgarrienetakoa bihurtu da Michael Winterbottom. Bere lanetan genero guztietako istorioak aurki ditzakegu: psikopata baten hilketak eta maitasun istorioak (*Butterfly kiss*), Bosniako gerra (*Welcome to Sarajevo*), drama sozialak (*Go now*); baina dudarik gabe bere onena drama erromantikoan eman du Winterbottom-ek, bai Thomas Hardy-ren klasikoan oinarritutako *Jude* bikainean, eta baita ere orain ikusgai izango dugun *I want you* honetan.

Filmearen oinarria eta inspirazioa Elvis Costello abeslariaren izen bereko kantan aurki daiteke. Kartzelan egon ondoren, beti maite izan duen neska bila abiatuko da gazte bat, kostaldeko herri txiki batean elkar bilatuko duten arte. Maitasun istorio arraro eta obsesibo honetan pertsonaiek ezkutuan gordetzen dituzten sekretuak agertuko dira. Esan bezala, maitasuna, obsesioa, musika, drama aurkituko dugu filme bikain honetan.

Irakurketarako aukerak

Euskaraz

Etorrerakoak

Agirre zaharraren kartzelaldi berriak

Berandu da gelditzeko

Errolanen harria

Hontzaren orduak



Patziku Perurena

Koldo Izagirre

Unai Iturriaga

Patxi Zabaleta

Txiliku

Gaztelera


Ciudadano Sade

Identidades asesinas

Single & Single

El mal mundo

Por siempre mía



Gonzalo Suarez

Amin Maalouf

John Le Carré

Luis Antonio de Villena

Mary Higgins Clark



MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Eparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

maiatza

HITZALDIA

"Ba al dakigu zer jaten dugun?" eta "Egoki jan osasuntsu bizitzeko" hitzaldiak Elhuyar elkartearen eskutik.

► Maiatzak **11** eta **12**, arratsaldeko **17**etan.

Behoko Plaza Elkartean

SAN TELMO IPUIN LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

► Maiatzak **14**, ostirala.

Forondan

HITZALDIA

"Emakumea eta lana" zikloko hitzaldia Idoia Odriozolaren eskutik.

► Maiatzak **18**, eta **20**, arratsaldeko **19**etan.

Behoko Plaza Elkartean

IPUIN KONTAKETA

3-5 urte bitarteko haurrentzat, Lamiak taldearen eskutik.

► Maiatzak **20**, osteguna, arratsaldeko **17:30**etan.

Liburutegian

ZINE FORUM

"I want you"

► Maiatzak **20**, osteguna, gaueko **22:15**etan.

Aita Mari zinean

TXISTU KONTZERTUA

► Maiatzak **22**, larunbata, arratsaldeko **19**etan.

Kofradian

KONTZERTUA

Barañaingo abesbatzaren kontzertua.

► Maiatzak **22**, larunbata, arratsaldeko **20**etan.

Parrokian

IPUIN ETA MUSIKA IKUSKIZUNA

"Apoaren edertasuna" Joseba Tapia eta Koldo Izagirrerekin.

► Ekainak **4**, gaueko **22:30**etan.

Aita Mari aretoan

ERAKUSKETAK

• Pintura tailerrak.

Maiatzan zehar, Forondako ikasleen lanak ikusgai.

► Maiatzaren **12**a arte.

Forondan

• Helena Ayerbe-ren akuarela bilduma

► Maiatzaren **14**tik **29**ra.

Forondan

• Batteleku-ren argazki erakusketa

► Maiatzaren **14**tik **30**era.

Oxford aretoan

LEHIAKETAK

• "Balkoi eta leihoak" Zumaiako etxeetako landareen lehiaketa, izen ematea/informazioa Forondan.

► Ekainaren **1**etik **15**era.

• "Udako Jaiak 99" udako kartel lehiaketa. Oinarriak Forondan. Saria 60.000 pezeta.

► Ekainaren **11**tik aurrera.

BISITA GIDATUAK

Laija museoak antolatuta: hiru museoak, parrokia eta alde zaharra, natur ingurunea. Informazioa eta izena ematea Turismo bulegoan.

► Ekaineko larunbatetan, **11**etan eta

16:30etan

UDALEKU IREKIAK 99

Izena ematea: ikastetxetan.

► Maiatzaren **17**tik **28**ra. Informazioa Ludotekan

Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

LIBURUTEGIA

Helduentzat

► Astegunetan, **9.30 - 13.30** eta **16.00 - 20.00**.

Larunbatean, **10.00 - 13.00**

Haurrentzat

► Astelehenetik ostiralera, **16.00 - 20.00**

ARTXIBO HISTORIKOA

► Egunero, **10.00**etatik **13.00**era

INTERNET

Liburutegian.

► Astegunetan, **10.00 - 13.00** eta **16.30 - 19.30**

ARGAZKI LABORATEGIA

Txuri-beltzeko argazki laborategia.

Forondan

LUDOTEKA

Haurren txokoa.

► Asteazkenetik ostiralera, **5 - 7:30** larunbatetan, **3 - 6**

Tel: 943 14 32 64

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

ILE APAINDEGIA

herea Uranga

Etzezarreta, 19 Tel. 862342




Paperdenda
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak

LIBURUDENDA

Baltasar Etxabe, 7
Tel. 143191

TALKINGHEADS



Mende laurden bat pasa da taldea sortu zenetik eta hamarkada bat baino gehiago beraien azken lana kaleratu zela. Orain, Warner etxeak David Byrne-ren taldearen lehen bost diskoak prezio merkean kaleratu ditu. Hainbat urteren ondoren bost artelan hauek entzun ondoren, eta nahiz eta musika mundua izugarrizko abiaduran aldatzen den, hauen musika hasieran bezain modernoa, banguardista eta beharrezkoa dela iruditzen zait. Talking Heads taldeaz ari naiz, orrialde honen idazlearen ustez, mende honetako talde garrantzitsuenetako batez.

Taldea 1974an sortu bazen ere, 1977ko punk mugimendua lehertu arte zain egon behar izan zuten ezagunak izateko. Beti ere fama gehiago izan dute London-eko punk taldeek (The Clash, Sex Pistols, The Jam, etab.) baina ez da ahaztu behar

Buru Hizlari banguardistak

New York-en garai hartan izan zen musika mugimendua: Devo, Ramones, Television, Blondie, B-52's... Talde haien artean bere lekua izan zuen Talking Heads-ek. Talde unibertsitarioa zen, kutsu intelektual handikoa. Lehen diskoarekin, "Talking Heads'77"-rekin lortu zuten lehen arrakasta, bertan baitzegoen "Psycho Killer" kanta, ordutik beraien kantarik famatuena bihurtu zena. Hala ere, ondoren etorri zen guztiaz ohartzeko bagara, lehen disko hori borradore bat dela konturatzen gara. Bikaina, baina borradorea. Eta ondoren zer etorri zen? Ba, bi hitzetan, Iraultza Musikala. Brian Eno musikariarekin batu eta historia egiteari ekin zioten. Lehen pausoa "More songs about buildings and food" izan zen, oraindik ere iraganarekin elkar puntu handiak zituena. Urtebete geroago "Fear of music" eta gero "Remain in light" kaleratu zituzten: bi maisu-lan. Inspirazioz eta freskotasunez betea, ordurarteko arau asko pikutara bota zituena. Newyorktarrek eta Brian Enok ez zuten beldurrik izan disko berean ordurarte guztiz kontrajarriak ziren estiloak batera jartzeko: pop, rock, funk, etnikoa, disco musika, soul... Nahasketa, banguardia, kitarrak, sintetizadoreak, perkusioak, hitz afrikarrak, artea, diseinua, intelektualitatea, New York, Europa, Afrika... "Fear of music" eta "Remain in light" azken 25 urteotako bi diskorik garrantzitsuenak? Agian bai.

Hain maila handia mantentzea ezinezkoa izan zen. "Speaking in tongues", bosgarren diskoa, ez da aurreko bien mailara heltzen, baina hala ere disko bikaina da. Disko honetan taldearen klasiko bat aurkitzen da: "Burning down the house" funkya. Bazirudien David Byrne-ri, taldearen buruari, musika mundua txikia geratu zitzaioala. Horrela, Jonathan Demme zinegileari deitu eta filma bat egiteari ekin zion taldeak. Izenburua "Stop making sense" da, eta zine musikaleko altxorretako bat. Taldea bere gorenean zegoen, bai musika kalitate eta bai arrakasta komertzial aldetik. Baina denak ezin du iraun, eta beherakada etorri zen. Ondorengo hiru diskoak rock arrunta eta musika brasildarraren artean daude, baina inspiraziorik gabea. Astunak egiten diren diskoak dira. Azken frakaso hauen ondoren taldea desagertu eta bakoitzak bakarkako lanak kaleratzeari ekin zion. Talking Heads historiara pasa zen.

Azken disko horiek taldearen balioa jaitsi egin bazuten ere, beraien lehen bost diskoak oraindik ere beharrezkoak dira. Egiten zuten musika hamarkada bat baino gehiago aurreratu zen, ezinezkoa zena egiten ausartu ziren. Hasierako disko horiek orain oso merke aurki daitezke. Aprobetxa ezazue, altxor bat ez da eta inoiz egon hain eskuragarri.

◀ JUAN LUIS ROMATET

Nikol  Enea

TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440



Zoruen kuxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412



Ikastolako neska-mutilak aspaldi hasi ziren Larraula joaten. Argazkia hau duzue frogarik onena. Seguru "Maxu Jon"-en ondoko horietatik gehienak ezagutzen dituzula. Zein da buruhaundi hori? Aiba! eta "matoï" itxurakoa? Joño! Beste hau igual-iguala dago-eta!

TXAPARTEGI GOZOTEGIAK emandako azken tarta **Maria Isabel Etxabeentzat** izan da. Berak zioen bezala argazkiko saxofoilari nekaezina Juan Mari Granados zen, ezizenez "Kanikas".

Lehiaketa goxoa

Adi, adi! ea tarta goxoa nork eramaten duen!!!



Argazki zaharreko bost lagunen izenak behar ditugu gutxienik.

Asmatzen duzuenon artean *Txapartegi* gozotegiak emandako tarta zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna gure hirugarren buzoi berrian edota Txapartegin bertan uztea, maiatzaren 22a baino lehen. Lehenbailehen idatzi eta

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

Rosi
garbiketak

* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 861670

motxian hi!



zein: Telmo Deun

zer: San Telmo

Nola: Festetako patroia

Noiz hasi zinen lan honetan?

Uf! Aspaldi, badira mende batzuk.

Lehen San Telmo kalean izaten ziren festak.

Bai, eta beste giro bat ere bazuten, kaleko jendeak era berezian bizi baitzituen festak. Orain ere hasi dira berriro kalekoak mugitzen, ea zer gertatzen den.

Oraindik ere beraiek jantitzen zaituzte.

Bai eta elegante asko gainera. Hala ere, eguzkitako betaurreko batzuk ere ondo etorriko zitzaikidan igande goizerako!

Zer iruditu zaizkizu aurtengo festak?

Ederrak, urtero bezala. Baina programan gazteen falta bota dut.

Zein zentzutan?

Beste urteetan gazteek programan parte hartzen zuten, ekintzak antolatu eta aurten parranda besterik ez dute egin.

Parranda txarra al da ba?

Ez neri ere gustatzen zait, baina festetan parte hartu beharra dago! Denon artean egin behar ditugu festak, eta denon artean gozatu.

Nola lortzen duzu urtero euria egitea Tanborra-darekin batera?

Emozioaren malkoak dira horiek, santuek ere baditugu gure debilidadiak!

San Pedrotan ere hasiak dira tanborrada egiten.

Bai, Pello zaharrak ez zekik zer egin bere festak girotzeko, baina alperrik ari da. Mutila soso samarra da eta...

Euskaltzaindiaren arabera Elmu Donea deitzen omen zara orain.

Hori da izena hori! Beste batzuek ere San Telmo pirata deitu ninduten.

San Telmo pirata al zara ba?

Egia esanda pixkat bai, nahiz eta jendeak ez gustokoa izan nire fazeta hori.

Bota desio bat hurrengo San Telmoetarako.

Bakarra? Gazteek programan parte gehiago hartzea, eta... datorren astean hastea berriz. Gora San Telmo!

agurrak

Look-ez aldatzen denean emozionatu egiten da gure neskatxoak

Nathing FALEFA

Rizitos de oro!! Ez da Kuartro latasa bakarrik moitzen dana geldikan.

Hi Maiky!! "Tautalak txoruak balia hiltzea arpoia bota-bota harkaitzaren kontra"

IGE

Ze etxean jaboirik ez, edo zer?

LOS ENANOS

Ze txoatxu, jaboik ez etxean edo zer?

BONBI

Santu guztiek dute errepetizioa, zergatik ez guk, pekatari trixteok?

Zorionak guapa! MUUUU!

Kakahueterarrok

Kontuz neska! Badakizu tximinoei asko gustazen zaizkiela kakahueteak, beraz ondo zaindu gure "Kakahuete txikia", Zorionak!



Zumaia Hotela
Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



ZURICH
ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1 Tel./Faxa: 860169

BELARDENDA SIWA
Izaga Garcia
DIETISTA
Esther Blanco
OSTEOPATA - MASAJISTA
Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

SOLOZABAL AUTOESKOLA
- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita *fidatzeko baimen guztiak*
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak
P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 861416





Langai



UNIBERTSITATEA

GOIMAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK (2.000 ordu)

- ADMINISTRARITZA ETA FINANTZAK

Lan aukera
zabalak



SELEKTIBITATEA

% 95-eko
aprobatu kopurua
azken 10 urtetan

- ERREGULAZIO ETA KONTROLEKO
SISTEMA AUTOMATIKOAK.



BATXILERGOA

- NATUR ETA OSASUN
ZIENTZIAK.
- TEKNOLOGIA.
- GIZA ETA GIZARTE
ZIENTZIAK.

Unibertsitate eta
edozein
ziklo egiteko
bideak irekitzen
dituzten gaiak
ziurtaturik

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (1.400 ordu)

- BARAZKI, HARAGI ETA ARRAINAK
KONTSERBAGINTZA.

400 ordu
enpresetan
praktikak
eginez



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

(DBH) 12-tik 16 urtera

ZUMAIAKO INSTITUTUA

Tel: 943 86 08 09 / 943 86 23 20

Aurrematrikula: Ekainak 1-etik 9-ra

10:00-etatik 13:00-ra

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA


ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatoz eta galdetu

GAS NATURALA
BUTANO
PROPANO




Urolthermik

Arotzia Metalikoa



POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko atearak eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA